




2003an, **Giza genoma proiektua** amaitu zen. Proiektu honek, geneek hainbat arlotan duten eragina ikertzeko giltza ematen zuten: gaixotasunen jatorria, gizakiaren eboluzioa, migrazioak etab.

Orain dela gutxirarte, gizakiak eta beste izaki bizidunak, geneetan jaiotzatik idatzita zegoena zirela uzte zen, baina gaur egun, geneak aldaketa kimiko txikiak dituztela dakigu, eta aldaketa hoiak gen askoren adierazpena trukatzan dutela. Aldaketa kimiko hoiak jatorria zehazten duen "hizkuntza" argitzen, zientziak badu lana.

Epigenetikak ezagutzen diran kontzeptuak berinterpretatzen ditu eta DNAn dagoen informazioa itzultzen, gizaki bakoitzak erabiltzen dituen mekanismo berriak argitzen ditu.

Gutxinaka gutxinaka, genomaren hizkuntz berri hau deszifratzen dihardute. Gaur egun, gure esperientziak, gure eta gure ondorengo material genetikoaren aldatu ahal dutela dakigu.

Horrela, gaur egun, hainbat prozesu fisiologiko eta patologikoetako mekanismo epigenetikoak azaldu dira: minbizi batzuetan, patologia kardiobaskularrean, prozesu neurologikoetan, immunologikoetan eta ugaltze prozesuan.

Overlapping signatures of chronic pain in the DNA methylation landscape of prefrontal cortex and peripheral T cells

KANADAKO MCGILL UNIBERTSITATEKO ZIENTZILARIAK:

Renaud Massart, Sergiy Dymov, Magali Millecamps, Matthew Suderman, Stephanie Gregoire, Kevin Koenigs, Sebastian Alvarado, Maral Tajerian, Laura S. Stone & Moshe Szyf

2016ko Urtarrilaren 28an SCIENTIFIC REPORTSen argitaratua




IKERKETAREN EMAITZA:


6 hilabete baino gehiago irauten duen minak, min kronikoak, **kortex prefrontaleko** eta sistema immunologikoaren osagai diren **periferiako T zeluletako** DNAn, aldaketak sortzen ditu




Ikerketa honetarako arratoiak erabili ziren, euren DNA eta gureak %90ko antzekotasuna dutelako



Arratoi talde bat minik barik dago, eta beste taldea, 9 hilabetetan zehar nerbio jatorria duen minagaz daude



Taldeen arabera (mina dutenak eta ez dutenak) DNAn metilazioan (+CH₃) ezberdintasunak aurkitzen dituzte



Metilo talde hori, minaren biomarkadore bat bezala interpretatzen da, eta kortex prefrontalean eta periferiako T zeluletan agertzen da batipat

Ondorioa: Min kronikoak Sistema Immunologikoaren osaera kimikoari eragiten dio. Minarekin markatuta gelditzen diren genetaren egon leike min kronikoak behar dituen medikazioaren pistak